



Prensa oharra

Hemengo kulturaren eta tradizioen aldeko konpromisoa

**EROSKI-K, EROSKI FUNDAZIOAK ETA EUSKARALDIAK
BERRITU EGIN DUTE EUSKARAREN ERABILERA OHITURAK
SUSTATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA**

- EROSKIk EAEn eta Nafarroan dituen denden sarean Euskaraldiko banderak salduko dituzte, herritarrek euskarari ematen dioten babesa ikusarazteko
- Banderak salduta biltzen dena Euskaraldia sustatzen duen erakundera joango da, Taupa Euskaltzaleen Mugimendura
- EROSKIk eta EROSKI Fundazioak berretsi egin dute tokiko hizkuntzak sustatu eta zabaltzeko duten konpromisoa, funtsezkoa baita autonomia erkidego bakoitzaren ondare kulturalerako
- Konpainia aitzindaria izan zen bere markako produktuen etiketan euskara eta gaztelania ez ezik gainerako hizkuntza ofizialak erabiltzen

Elorrio, 2025eko martxoaren 31.- [EROSKIk](#) eta [EROSKI Fundazioak](#) berritu egin dute [Taupa Euskaltzaleen Mugimenduarekin](#) [Euskaraldia](#) laugarrenez antolatzeke egin duten lankidetzak. Ekimen horren bitartez, gizartean euskara bultzatzea da asmoa. Bi erakundeek indartu egin dute kanpaina honi emandako babesa, eta herritarren egunerokoan hizkuntzaren presentzia sustatzeko ekintzak gauzatzeko dituzte.

Konpromisoaren parte, EROSKIk salgai jarriko ditu Euskaraldiko banderak EAeko eta Nafarroako saltegietan. Helburua da herritarrek ekimenari babesa erakustea balkoietan, komertzioetan eta beste espazio ikusgarri batzuetan. Ekintzaren bidez bildutakoa Taupa Euskaltzaleen Mugimenduari bideratuko zaio (hark sustatzen baitu Euskaraldia), euskararen alde egiten duen lana bultzatzen jarraitzeko.

"EROSKIk urteak daramatza euskara normalizatzeko aktiboki lanean: bai kontsumitzaileekin eta langile eta hornitzaileekin dugun harremanean hizkuntza sustatuz eta bai erakunde bultzatzaile erreferenteekin lankidetzak garatuz. Ez kasualitatez, urteak eta urteak daramatzagu banaketa enpresa bakarra izanez marka propioko produktuen etiketak euskaraz bezala berdin gainerako hizkuntza ofizialetan ere eskaintzen. Laugarren Euskaraldi honetan babesa emanez,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



euskararen erabilera indartzen jarraitu nahi dugu egunerokoan, eta gizartean eta eremu komertzialean bere tokia har dezan lagundu", nabarmendu du EROSKIko Gizarte arloko zuzendariak, Iñigo Eizaguirrek.

EROSKI Fundazioak dohaintza ekonomiko bat egingo du ekimena garatzen laguntzeko, bere helburuetan baitago tokiko kultura eta ingurunea sustatzea. "Gure inguruneko hizkuntz errealitatea gure nortasun ikurretako bat da, eta koherentea da ildo horretan EROSKI Fundazioaren beste garapen batzuekin; esaterako, *Consumer aldizkariaren argitalpena eta Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Plana", aipatu du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKI Fundazioko zuzendari nagusiak.*

Bestalde, Jasone Mendizabal Altunak, Taupa Euskaltzaleen Mugimenduaren izenean, lankidetzeta mota horri jarraipena ematearen garrantzia azpimarratu du: *"EROSKI eta EROSKI Fundazioa ekimenarekin konprometitu izana funtsezkoa da Euskaraldiak arrakasta izan dezan. Urtez urte, euskararen erabilera espazio eta egoera berrietara hedatzea lortzen dugu, eta gero eta jende gehiago batzen da egitasmora".*

Banderen kanpaina maiatzean abiatuko da, 2025eko Euskaraldiaren ospakizunarekin batera, eta komunikazio ekintza batzuekin lagunduta joango da EROSKIko saltokietan, herritarrak parte hartzera animatzeko.

Hitzarmen horren bitartez, EROSKIk eta EROSKI Fundazioak berretsi egin dute hizkuntz aniztasuna eta tokiko hizkuntzak sustatzeko duten konpromisoa, funtsezkoa baita autonomia erkidego bakoitzaren ondare kulturalerako. Euskaraldia babestea tokiko kulturaren eta nortasunaren alde egiteko duen bokazioarekin eta apustuarekin lerrokatuta dago.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)